

## **BALIO PROPOSAMENA**

### **ZE BEHAR EDO ARAZO KONPONTZEN DUGU?**

Gure zerbitzuak ikasleen behar gehienak azetzen ditu , hainbat zerbitzu batera ematen dituen aplikazio/webgunea da eta.

Gaur egun edozein ikasle (DBH , unibertsitatea...) arazo askoei aurrera egin behar die , gehienetan bakarrik, eta arazo hoiak konpontzeko laguntza eskaintzen duen zerbitzu bat beharrezkoa dela uste dugu Maitem taldean.

Lanez gainezka zaudenean , azterketa asko pilatuta dituzunean, lana edo proiekturen bat egin behar duzunean , irakurketa liburu bat behar duzunean...laguntza behar dugu.Gure webguneak eskaintzen duen laguntza edo zerbitzua hurrengo da arazo hoiak konpontzeko:apunteak/eskema partekatze , liburuak salerosteko, azterketen zalantzak argitzeko , proiektuak eta lanak usteko.....aukera ematen duen webgunea edozein ikasleentzako.Horretaz aparte gainerako arazoak konpontzeko laguntza eskainiko dugu , hala nola estresa eta antsietatea gainditzeko trukoak emango dira eta ikasteko modu egokia irakasteko teilerrak egongo dira.

Beraz esan genezake gure zerbitzua balio kualitatibo bat daukala.Gure zerbitzuari balioa ematen diona prezioa , eskuragarritasuna ,erabilgarritasuna,lana errasten duela....da.

## **ZER BEREIZTEN ZAITU ETA , BERAZ, ZERGATIK EGONGO DA BEZEROA ZURI ORDAINTZEKO PREST ?**

Gure webgunea gehien bereizten duen gauzetako bat erabilerraztasuna da, Interneteko edozein bilatzailek (G-mail edo classroom) erabil dezakeen aplikazio bat da. Horrekin batera, erabilgarritasuna, erabiltzeko modua oso erraza da eta ez da ezer berririk ikasi behar erabiltzeko. Atal guztiak errazak dira aurkitzeko eta erabiltzeko, eta zalantzaren bat izanez gero, erabiltzaile guztiak gurekin edo beste erabiltzaile batzuekin jar daitezke harremanetan zalantza horiek argitzeko.

Bestalde, prezioa hau da: erabiltzaileak aplikazioa nahi badu, guztiz doakoa da, eta arazorik gabe goza dezake gure webguneaz. Premium zerbitzu nustroetara sartzeko (adibidez, klase partikularrak), kostuak oso ekonomikoak dira eta mundu guztiarentzat eskuragarri daude; eta, gainera, Maitemek ziurtatzen du irabazien % 20 gizarte-ekintzetarako direla, erabiltzaileak aukeratu beharrekoak.

Amaitzeko, garrantzitsuena ikasleei kentzen dien lana da, gure webguneko erabiltzaileek ez dute zertan denbora inbertitu Interneten apunteak eginez edo informazioa bilatuz.

Lana erraztea da Maitem ikasleentzako beste aplikazio batzuetatik gehien bereizten duena.